

<p>GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNUKO BATZARRAK 2021EKO APIRILAREN 13AN LEHENENGO DEIALDIAN EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.</p> <hr/> <p><u>BILDUTAKOAK</u></p> <p><u>LEHENDAKARIA</u></p>	<p>ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 13 DE ABRIL DE 2021.</p> <hr/> <p><u>ASISTENTES</u></p> <p><u>PRESIDENTA</u></p>
---	---

Amaia Aguirre Muñoa And.

<p><u>BATZARKIDEAK</u></p>	<p><u>VOCALES</u></p>
----------------------------	-----------------------

Keltse Eiguren Alberdi And.  
Irantzu Uriarte Gómez And.  
Álvaro González Pérez Jn.  
Ignacio Uriarte Gorostiaga Jn.  
Joseba Arregui Martínez Jn.  
Janire Ocio Celada And.  
Iñigo Urkitza Yañez Jn.  
Carmen Díaz Pérez And

<p><u>IDAZKARI NAGUSIA</u></p>	<p><u>SECRETARIO GENERAL</u></p>
--------------------------------	----------------------------------

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bateko apirilaren hamairuan eta Amaia Aguirre Muñoa alkate andrea bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotziez gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

Alkateak, legeak eskatzen duen kidekopurua bildu dela ikusita, bilerari

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a trece de abril de dos mil veintiuno, y bajo la presidencia de la Sra. Alcaldesa, doña Amaia Aguirre Muñoa, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

La Alcaldesa, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la

hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

**133.- UDALEKO GOBERNU BATZARRAK 2021EKO MARTXOAREN 30EAN EGIN DUEN OHIKO BILERAKO AKTA ONESTEA.**

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2021eko marxoaren 30eko bilerakoa, hain zuzen.

**ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK**

**134.- BIZKAIA ZUBIKO PLAZAN DAUDEN KOMUN PUBLIKOAK BIRGAITZEKO OBRAREN KONTRATUA ALDATZEA.**

Kontratazio, Ondare eta Etxebizitza arloen zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

Lehenengoa: Bizkaia zubiko enparantzan dauden komuna publikoak birgaitzeko obraren kontratua aldatzeko espedientearen hasiera baimentzea eta aldaketa onartzea, asmo honekin: egin beharreko obra-unitateak gehitu ondoren ateratzen den aurrekontu berria onartzea, haren zenbatekoa 37.451,18 eurotan haunditzea suposatzen duelarik (BEZ barne).

Bigarrena: Kontratu aldaketa horri aurre egiteko beharrezkoa den 37.451,18 euroko gastua baimendu eta xedatzea, "Construcciones Artelu y Hargin de piedra labrada, S.A.L." enpresaren alde (IFK A 48777130).

sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**133.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 30 DE MARZO DE 2021.**

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 30 de marzo de 2021.

**ORGANIZACIÓN Y CUENTAS**

**134.- MODIFICACIÓN DEL CONTRATO DE LA OBRA DE REHABILITACIÓN DE LOS ASEOS PÚBLICOS EXISTENTES EN LA PLAZA DEL PUENTE BIZKAIA.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

Primero: Autorizar el inicio del expediente y aprobar la modificación del contrato de la obra de rehabilitación de los aseos públicos existentes en la plaza del Puente Bizkaia, al objeto de aprobar el nuevo presupuesto resultante tras la incorporación de las unidades de obra que han de realizarse, lo cual supone incrementar el importe de aquél en 37.451,18 euros (I.V.A. incluido).

Segundo: Autorizar y disponer el gasto, por importe de 37.451,18 euros, en favor de la empresa "Construcciones Artelu y Hargin de piedra labrada, S.A.L.", con CIF: A 48777130, necesario para hacer frente a la citada modificación contractual.

Hirugarrena: Obraren etenduraren berri ematea. Etetea 2021/03/18an gertatu zen. Etete hori akordio hau onestean amaituko da.

Laugarrena: Obra egikaritzeko epea lau astebetetan luzatzea.

Bostgarrena: Ebazpen hau kontratuaren esleipendunari jakinaraztea, gehienez hamabost egun naturaleko epean (jakinarazpena jasotzen denetik) kontratuaren behin betiko bermea egokitu dezan, 1.547,57 eurotan gehituz.

Baita Azpiegitura eta Zerbitzuak departamenduari jakinaraztea ere.

Seigarrena: Aldaketa administrazio-dokumentuan formalizatuko da, ebazpen hau adjudikaziodunari jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 15 egun balioduneko epean, baina beti aurreko apartatuan jasotako bermea berriz egokitu ostean.

Zazpigarrena: Aldaketa hori kontratatzailearen udal-profilean argitaratuko da, honako txosten hauen kopiarekin batera:

- Sailaren txostena, luzapena justifikatzen duena (ebazpen honen bigarren atalean aipatzen da).
- Ebazpen honen bosgarren atalean aipatutako txosten juridikoa.

**135.- USATEGI KAFETEGIAREN INGURATZAILEA BIRGAITZEKO ETA HAREN FUNTZIOAK EGOKITZEKO OBREN PROIEKTUA ONARTZEA, HURA ESLEITZEKO IZAPIDEAK HASTEKO BAIMENA**

Tercero: Dar cuenta de la suspensión de la obra, la cual se produjo el día 18/03/2021. Dicha suspensión se levantará con la aprobación del presente acuerdo.

Cuarto: Ampliar el plazo de ejecución de la obra en cuatro semanas.

Quinto: Notificar la presente resolución a la adjudicataria del contrato, a efectos de que en el plazo de quince días naturales, a partir del recibo de la notificación del mismo, proceda a reajustar la Garantía Definitiva del contrato, incrementándola en la cantidad de 1.547,57 euros.

Notificar así mismo al Departamento de Infraestructura y Servicios.

Sexto: La modificación se formalizará en documento administrativo, dentro del plazo de 15 días hábiles a contar desde el siguiente a la notificación a la adjudicataria de la presente resolución, pero siempre previo el reajuste de la garantía recogido en el apartado anterior.

Séptimo: Esta modificación se publicará en el perfil municipal del contratante, junto con copia de los siguientes informes:

- Informe del Departamento justificando la ampliación (citado en el apartado segundo de esta resolución).
- Informe jurídico citado en el apartado quinto de esta resolución.

**135.- APROBACIÓN DEL PROYECTO DE OBRAS DE REHABILITACIÓN DE LA ENVOLVENTE Y ADECUACIÓN FUNCIONAL DE LA CAFETERÍA USATEGI, AUTORIZAR EL INICIO**

**EMATEA, PLEGUAK ONARTZEA  
ETA GASTUA BAIMENTZEA.**

Kontratazio, Ondare eta Etxebizitza arloen zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

Lehenengoa: Usategi kafetegiko ingurutzaileren birgaitzea eta egokitzapen funtzionalaren obrarako proiektu teknikoa onartzea. Aurrekontua 297.609,70 eurokoa da, BEZ barne, eta egikaritze epea lau hilabetetan gauzatu beharko da, Zuinketa Egiaztatzeko Aktan sinatzen denetik aurrera zenbatuta.

Bigarrena: erreferentziako kontratua adjudikatzeko arauzko izapidetzea hasteko baimena ematea, prozedura ireki bidez.

Hirugarrena: Administrazio-kontratazioa arautuko duten administrazio-klausula berezien plegua eta plegu teknikoa onartzea.

Laugarrena: Erreferentziazko kontrataziotik eratortzen diren betebeharrei aurre egiteko gastua baimentzea, 297.609,70 eurokoa.

Bostgarrena: Kontratuaren arduradun Azpiegitura unitateko ingeniari buru den Pedro M<sup>a</sup> Sacristán González izendatzea, SPKLaren 62 artikulutik eratorritako lege efektuetarako.

**136.- GETXOKO UDALETXERAKO  
MEZULARITZA-ZERBITZUA  
ESLEITZEA.**

Kontratazio, Ondare eta Etxebizitza arloen zinegotzi arduradunak proposatuta, honako erabaki-proposamen hau onartu da:

**DE LA TRAMITACIÓN PARA SU  
ADJUDICACIÓN, APROBAR  
PLIEGOS Y AUTORIZAR EL GASTO.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

Primero: Aprobar el Proyecto técnico para obra de rehabilitación de la envolvente y adecuación funcional de la cafetería Usategi, cuyo Presupuesto asciende a 297.609,70 euros, I.V.A. incluido, y cuyo plazo de ejecución es de cuatro meses, a contar desde la suscripción del Acta de Comprobación del Replanteo.

Segundo: Autorizar el inicio de la tramitación reglamentaria para la adjudicación, mediante Procedimiento Abierto, del contrato de referencia.

Tercero: Aprobar los pliegos de cláusulas administrativas particulares y técnicas que han de regir la contratación administrativa.

Cuarto: Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación de referencia, por importe de 297.609,70 euros.

Quinto: Nombrar responsable del contrato al Ingeniero jefe de la unidad de Infraestructuras, Pedro M<sup>a</sup> Sacristán González, a los efectos legales que se deriven del artículo 62 de la LCSP.

**136.- ADJUDICACIÓN DEL  
SERVICIO DE MENSAJERÍA PARA  
EL AYUNTAMIENTO DE GETXO.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Patrimonio y Vivienda, se decidió aprobar la siguiente propuesta de acuerdo:

## EGITATEZKO AURREKARIAK

LEHENENGOA.- Tokiko Gobernu Batzarrak 2020-10-13an egindako saioan hartutako 310 Erabakiaren bitartez, GETXOKO UDALERAKO MEZULARITZA-ZERBITZUA prozedura irekiaren bidez kontratatzeke arauzko izapidea abiarazteko baimena eman zen. Kontraturako balioetsitako aurrekontua 60.323,34 eurokoa da, % 21 BEZ barne, kontratuak irauten duen urteari dagokionez.

Kontratu honen iraupena URTEBETEKOA izango da, administrazio kontratua formalizatzen denetik aurrera zenbatzen hasita, eta ezin izango da luzatu.

Kontratuaren zenbatetsitako balioa 49.854 eurokoa da.

BIGARRENA.- Dagokion lizitazio-iragarkia udalaren kontratzailearen profilean argitaratu zen, bai eta Eusko Jaurlaritzaren kontratazio plataforman ere, 2020-10-14an.

HIRUGARRENA.- 2020-11-03an, Getxoko Udaleko Kontratazio Zerbitzuko bulegoetan, aurkeztutako hiru proposamenen dokumentazio orokorra jasotzen zuen gutun-azala ireki zen jendaurrean; hori egin zen, kontratazio publikoaren arloan indarrean dagoen araudia betez, aplikatu beharreko udal-xedapenak betez eta aipatutako kontratua adjudikatzeko espedienteko Administrazio Klausula Berezien Pleguetan jasotakoa betez. Hauek dira aurkeztutako proposamenak:

- AERO-FERR SA
- WALL STREET LOGISTIC SA
- BIZKAIGAR SL

## ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Por acuerdo nº 310 adoptado por Junta de Gobierno Local celebrada en fecha 13/10/2020, se autorizó el inicio de la tramitación reglamentaria para la celebración, mediante Procedimiento Abierto, del SERVICIO DE MENSAJERÍA PARA EL AYUNTAMIENTO DE GETXO. El presupuesto máximo estimado del contrato será de 60.323,34 euros, 21% de I.V.A. incluido, durante el año de duración del contrato.

La duración del presente contrato será de UN AÑO desde la fecha de formalización del contrato administrativo, no siendo susceptible de prórroga.

El valor estimado del contrato asciende a 49.854 euros.

SEGUNDO.- El preceptivo anuncio de licitación es publicado en el Perfil del Contratante del Ayuntamiento, así como en la Plataforma de Contratación del Gobierno Vasco, con fecha 14/10/2020.

TERCERO.- Con fecha 03/11/2020, en cumplimiento de la normativa vigente en materia de contratación pública, así como de las disposiciones municipales que resultan de aplicación y según lo contemplado en los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares del expediente para la adjudicación del contrato de referencia, se procede, en las Dependencias del Servicio de Contratación del Ayuntamiento de Getxo, a la Apertura, en acto público, del sobre que contenía la Documentación General de las tres proposiciones presentadas, a saber:

- AERO-FERR NORTE, S.A.
- WALL STREET LOGISTIC, S.A.
- BIZKAIGAR, S.L.

Aurkeztutako hiru eskaintzen dokumentazioan atzemandako akatsak edota hutsuneak ikusita, hiru egun balioduneko epea eman zitzaien, aurkeztutako dokumentazioa zuzentzeko edo osatzeko; halaxe egin zuten horretarako emandako epearen barruan.

A la vista de los defectos y/o omisiones detectados en la documentación de las tres ofertas presentadas se les dio un plazo de 3 días hábiles para que subsanasen o corrigiesen la documentación presentada, cosa que hicieron dentro del plazo conferido al efecto.

LAUGARRENA.- Kontratazio Mahaiak, 2020/11/17an, automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideak azpitulatutako gutun-azala ireki zuen, eta emaitza hau izan zuen:

CUARTO.- Por la Mesa de Contratación, de fecha 17/11/2020, se procedió a la apertura del sobre subtulado CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA AUTOMÁTICA, con el siguiente resultado:

LIZITATZAILEAK LICITADORES	<p style="text-align: center;"><b>AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK</b></p> <p>1.- Helbideko prezioa: 9 euro, BEZ gabe <u>50 puntu</u>. 2.- Kilometroko prezioa: 0,50 euro, BEZ gabe <u>30 puntu</u> 3.- Itxarote-denboraren araberako prezioa: 0,40 euro, BEZ gabe <u>10 puntu</u>. 4.- Zubi-zerbitzuaren prezioa Euskal Autonomia Erkidegoan: 9 euro, BEZa gabe <u>5 puntu</u>. 5.- Zubi-zerbitzuaren prezioa Estatuan: 9 euro, BEZa gabe <u>3 puntu</u>. 6.- Nazioarteko eta Europako zerbitzuaren prezioa: 20 euro, BEZ gabe <u>2 puntu</u>.</p> <p style="text-align: center;"><b>CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA AUTOMÁTICA</b></p> <p>1.- Precio por dirección: 9.-€ sin IVA. <u>50 puntos</u>. 2.- Precio por Km: 0,50.-€ sin IVA. <u>30 puntos</u> 3.- Precio por tiempo de espera: 0,40.-€ sin IVA. <u>10 puntos</u>. 4.- Precio Servicio Puente en la Comunicad Autónoma Vasca: 9.-€ sin IVA. <u>5 puntos</u>. 5.- Precio Servicio Puente Estatal: 9.-€ sin IVA. <u>3 puntos</u>. 6.- Precio Servicio Internacional Europa: 20.-€ sin IVA. <u>2 puntos</u>.</p>
<b>AERO-FERR NORTE, S.A.</b>	<p>1.- Helbideko prezioa / Precio por dirección: <b>6,00.-€</b> 2.- Kilometroko prezioa / Precio por Km: <b>0,45.-€</b> 3.- Itxarote-denborako prezioa / Precio por tiempo de espera: <b>0,35.-€</b> 4.- Zubi zerbitzuaren prezioa Euskal Autonomia Erkidegoan / Precio Servicio Puente en la Comunicad Autónoma Vasca: <b>5,00.-€</b> 5.- Zubi zerbitzuaren prezioa Estatuan / Precio Servicio Puente Estatal: <b>6,00.-€</b> 6.- Nazioarteko eta Europako zerbitzuaren prezioa / Precio Servicio Internacional Europa: <b>20,00.-€</b></p>
<b>WALL STREET LOGISTIC, S.A.</b>	<p>1.- Helbideko prezioa / Precio por dirección: <b>4,10.-€</b> 2.- Kilometroko prezioa / Precio por Km: <b>0,45.-€</b> 3.- Itxarote-denborako prezioa / Precio por tiempo de espera: <b>0,30.-€</b> 4.- Zubi zerbitzuaren prezioa Euskal Autonomia Erkidegoan / Precio Servicio Puente en la Comunicad Autónoma Vasca: <b>4,50.-€</b> 5.- Zubi zerbitzuaren prezioa Estatuan / Precio Servicio Puente Estatal: <b>4,50.-€</b> 6.- Nazioarteko eta Europako zerbitzuaren prezioa / Precio Servicio Internacional Europa: <b>11,00.-€</b></p>
<b>BIZKAIGAR, S.L.</b>	<p>1.- Helbideko prezioa / Precio por dirección: <b>8,50.-€</b> 2.- Kilometroko prezioa / Precio por Km: <b>0,48.-€</b> 3.- Itxarote-denborako prezioa / Precio por tiempo de espera: <b>0,38.-€</b> 4.- Zubi zerbitzuaren prezioa Euskal Autonomia Erkidegoan / Precio Servicio Puente en la Comunicad Autónoma Vasca: <b>7,50.-€</b></p>

	5.- Zubi zerbitzuaren prezioa Estatuan / Precio Servicio Puente Estatal: <b>8,00.-€</b> 6.- Nazioarteko eta Europako zerbitzuaren prezioa / Precio Servicio Internacional Europa: <b>19,00.-€</b>
--	--

Kontratazio-mahaia osatzen duten kideek egiaztatu dute lizitatzailleek aurkeztutako eskaintza ekonomikoek ez dutela gainditzen administrazio-klausulen pleguko 4. klausulan ("Kontratuaren zerbatekoa") ezarritako gehieneko zerbatekoa.

Ondoren, aztertu da aurkeztutako eskaintzek ez dakartela ezohiko edo neurritz kanpoko baliorik, administrazio-klausulen pleguko 4 bis klausulan ("Ezohiko edo neurritz kanpoko balioak") ezarritakoaren arabera, bat etorritz Administrazio Publikoen Kontratuen Araudi Orokorren 85. artikuluan jasotakoarekin. Egindako azterketan ikusi da ezohiko balioak dituztela (jarraian adierazitakoaren arabera) honako eskaintza eta prezio hauek:

#### AERO-FERR NORTE SA

- Helbideko prezioa, lizitazio-tasaren % 25 baino gehiagoko baja.
- EAeko zubiaren zerbitzuaren prezioa, lizitazio-tasaren % 25 baino gehiagoko baja.
- Estatuko zubiaren zerbitzuaren prezioa, lizitazio-tasaren % 25 baino gehiagoko baja.

#### WALL STREET LOGISTIC SA

- Helbideko prezioa, lizitazio-tasaren eta aurkeztutako eskaintzen batez bestekoaren % 25 baino gehiagoko baja, ken % 10.
- Itxarote-denboraren araberako prezioa, aurkeztutako eskaintzen batez bestekoaren baino baja handiagoa, ken % 10.
- Zubi-zerbitzuaren prezioa EAEn,

Los miembros que integraban la Mesa de Contratación, comprobaron que las ofertas económicas presentadas por los licitadores no excedían del importe máximo establecido en la cláusula 4 (*Importe del contrato*) del Pliego de Cláusulas Administrativas.

A continuación se analizaron si las ofertas no incurrieran en valores anormales o desproporcionados de acuerdo con lo establecido en la cláusula 4 bis (*Valores anormales o desproporcionados*) del Pliegos de Cláusulas Administrativas por remisión al artículo 85 RGCAP. De análisis realizado se observó que incurrieran en valores anormales (según lo que a continuación se indica) las siguientes ofertas y precios presentados:

#### AERO-FERR NORTE, S.A.

- Precio por dirección, baja superior al 25% sobre el tipo de licitación.
- Precio Servicio Puente en CAV, baja superior a un 25% sobre el tipo de licitación.
- Precio Servicio Puente Estatal, baja superior a un 25% sobre el tipo de licitación.

#### WALL STREET LOGISTIC S.A.

- Precio por dirección, baja superior al 25% sobre el tipo de licitación y a la media de las ofertas presentadas menos el 10%.
- Precio por tiempo de espera, baja superior a la media de las ofertas presentadas menos el 10%.
- Precio Servicio Puente en CAV, baja superior al 25% sobre el tipo

- lizitazio-tasaren % 25 baino gehiagoko baja.
- Zubi-zerbitzuaren prezioa Estatuan, lizitazio-tasaren eta aurkeztutako eskaintzen batez bestekoaren % 25 baino gehiagoko baja, ken % 10.
- Nazioarteko eta Europako zerbitzuaren prezioa, lizitazio-tasaren % 25 baino gehiagoko baja.

- de licitación.
- Precio Servicio Puente Estatal, baja superior al 25% sobre el tipo de licitación y a la media de las ofertas presentadas menos el 10%.
- Precio Servicio Internacional Europa, baja superior al 25% sobre el tipo de licitación.

Horrenbestez, SPKLren 149. artikuluan zehaztutako izapideak betetzea erabaki zen.

En consecuencia, se determinó que se siguieran los trámites señalados en el art. 149 LCSP.

BOSTGARRENA.- 2020-11-23an, Kontratazio Sailak entzunaldi-izapidea abiarazi zuen AERO-FERR NORTE SA eta WALL STREET LOGISTIC SA enpresek aurkeztutako eskaintza ekonomikoak justifikatzeko. Bi enpresek alegazioak eta dokumentazioa aurkeztu zituzten horretarako emandako hamar egun balioduneko epean.

QUINTO.- Con fecha 23/11/2020 desde el Departamento de Contratación se dio inicio al trámite de audiencia para la justificación de las ofertas económicas presentadas por "AERO-FERR NORTE, S.A." y "WALL STREET LOGISTIC S.A.". Ambas empresas presentaron alegaciones y documentación dentro del plazo de diez días hábiles conferido para ello.

SEIGARRENA.- Langileria eta Antolaketako administrazio orokorreko teknikariak txostena egin zuen 2020-12-22an, eta, bertan, AERO-FERR NORTE SA eta WALL STREET LOGISTIC SA enpresen eskaintzen ezohiko edo neurriz kanpoko balioak justifikatu ziren. Halaber, 2021-01-27an, modu automatikoan ebaluatzen diren irizpideen balorazioari buruzko txostena egin zuen.

SEXTO.- Por el Técnico de Administración General de Personal y Organización se emite informe, de fecha 22/12/2020, sobre la justificación de los valores anormales o desproporcionados de las ofertas de "AERO-FERR NORTE, S.A." y "WALL STREET LOGISTIC S.A.". Asimismo, con fecha 27/01/2021 emitió informe sobre valoración de los criterios evaluables automáticamente.

ZAZPIGARRENA.- 2021-02-02ko Kontratazio Mahaia osatzen zuten kideek Langileria eta Antolaketako administrazio orokorreko teknikariak egindako 2020-12-22ko txostena aztertu eta onartu zuten, non justifikatutzat jo diren AERO-FERR NORTE SA eta WALL STREET LOGISTIC SA enpresak aurkeztutako eskaintzak. Era berean, 2021-01-27ko IRIZPIDE AUTOMATIKOEI buruzko txostenaren berri eman da aipatutako espedientean. Jarraian, egindako balorazioaren

SÉPTIMO.- Por los miembros que integraban la Mesa de Contratación, de fecha 02/02/2021, fue analizado y asumido el informe realizado por el T.A.G. de Personal y Organización, de fecha 22/12/2020, que consideraba justificadas las ofertas presentadas tanto por "AERO-FERR NORTE, S.A." como por "WALL STREET LOGISTIC S.A.". Asimismo, se dió traslado del informe sobre CRITERIOS AUTOMÁTICOS de fecha 27/01/2021 en el expediente de



laburpena jaso da:

referencia y del que a continuación se recoge un resumen de la valoración realizada:

KONTZEPTUA CONCEPTO	PUNTUAK GEHIENEZ PUNTOS MÁXIMOS	LIZITAZIO OINARRIA TIPO DE LICITACIÓN	AERO FERR		WALL STREET LOGISTIC		BIZKAIGAR	
			ESKAINITZA OFERTA	PUNTUAK PUNTOS	ESKAINITZA OFERTA	PUNTUAK PUNTOS	ESKAINITZA OFERTA	PUNTUAK PUNTOS
HELBIDEAGATI K POR DIRECCIÓN	50	9,00 €	6,00 €	34,17	4,10 €	50,00	8,50 €	24,12
KILOMETROENG ATIK POR KM	30	0,50 €	0,45 €	30,00	0,45 €	30,00	0,48 €	28,13
ITXAROTE- DENBORAGATIK POR TIEMPO DE ESPERA	10	0,40 €	0,35 €	8,57	0,30 €	10,00	0,38 €	7,89
EAE ZUBI- ZERBITZUA SERVICIO PUENTE CAV	5	9,00 €	5,00 €	4,50	4,50 €	5,00	7,50 €	3,00
ESTATUKO ZUBI- ZERBITZUA SERVICIO PUENTE ESTATAL	3	9,00 €	6,00 €	2,25	4,50 €	3,00	8,00 €	1,69
NAZIOARTEKO ETA EUROPAKO ZERBITZUA SERVICIO INTERNACIO NAL EUROPA	2	20,00 €	20,00 €	1,10	11,00 €	2,00	19,00 E	1,16
<b>GUZTIRA TOTAL</b>	<b>100</b>			<b>80,59</b>		<b>100,00</b>		<b>65,98</b>

Ondoren, Kontratazio Mahaia osatzen duten kideek proposatu dute GETXOKO UDALEKO MEZULARITZA-ZERBITZUA WALL STREET LOGISTIC SA sozietateari (IFK: A-48214506) adjudikatzea.

Seguidamente, los miembros que integraban la Mesa de Contratación, propusieron adjudicar el el SERVICIO DE MENSAJERÍA PARA EL AYUNTAMIENTO DE GETXO a la razón social "WALL STREET LOGISTIC S.A.", con CIF: A-48214506.

Enpresak gaitasun- eta kaudimen-baldintzak eta legez eskatutako gainerakoak betetzen dituela egiaztatzeko agiriak aurkeztearen mende zegoen adjudikazio-proposamen hori.

Dicha propuesta de adjudicación quedaba supeditada a que el licitador aportase la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos de capacidad, solvencia y demás obligaciones legalmente exigidas.

Aipatutako adjudikazioa automatikoki ebaluatu beharreko irizpideen balorazioan lortutako baturaren arabera egiten da; balorazio-taula honetan zehaztu dira irizpide horiek:

La citada adjudicación se realizó de acuerdo con la suma obtenida de la valoración de los criterios evaluables de forma automática que se detallan en el siguiente cuadro de valoración:

<b>PUNTAZIOA GUZTIRA PUNTUACIÓN TOTAL</b>		
<b>WALL STREET LOGISTIC, S.A.</b>	<b>AERO FERR NORTE, S.A.</b>	<b>BIZKAIGAR, S.L.</b>
<b>100,00</b>	<b>80,59</b>	<b>65,98</b>

ZORTZIGARRENA.- 2021-02-09an, SPKLaren 140. eta 150. artikuluetan xedatutakoa betez, "WALL STREET LOGISTIC S.A." enpresari (IFK: A-48214506) errekerimendua egin zitzaion, eta, gainera, aipatu den entitateak aginduan jasotako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa espedientean jasota geratu zen; hots:

- a) Administrazioarekin kontratatzeko legeak ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko dituen betebeharrak egunean izatea.
- c) Behin betiko bermea eratuta izatea, 2.492,70.- eurokoa.

OCTAVO.- En fecha 09/02/2021 se requiere a la razón social "WALL STREET LOGISTIC S.A.", con CIF: A-48214506, a los efectos de lo dispuesto en los artículos 140 y 150 de la LCSP, constando en el expediente la correspondiente documentación justificativa de que la entidad referida cumple los requisitos recogidos en el citado precepto, a saber:

- a) Documentación acreditativa de cumplir con las condiciones establecidas legalmente para contratar con la Administración.
- b) Hallarse al corriente del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.
- c) Haber constituido garantía definitiva por importe de 2.492,70.-euros.

BEDERATZIGARRENA.- Adjudikaziodunak behin betiko bermea eratu zuen 2021-02-12an, hain zuzen, 3/2021/1/000704 zenbakiduna, 2.492,70 eurokoa.

NOVENO.- La adjudicataria, con fecha 12/02/2021, constituye la garantía definitiva nº 3/2021/1/000704 por importe de 2.492,70.-euros.

Aurreko egitatezko aurrekarietara honako zuzenbideko oinarriak aplikatu behar zaizkie:

A los anteriores antecedentes de hecho son de aplicación los siguientes

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

#### FUNDAMENTOS DE DERECHO

I.- 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, azaroaren 8koa.

I.- La Ley 9/2017, de Contratos del Sector Público (LCSP), de 8 de noviembre.

II.- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; haren bidez, Sektore Publikoko

II.- Real Decreto 817/2009 de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la

Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen aurka egiten ez duen guztian.

Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público en lo que no se oponga a la LCSP.

III.- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua; haren bidez, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onetsi zen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen aurka egiten ez duen guztian.

III.- Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas en lo que no se oponga a la LCSP.

IV.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onetsiko testu bategina eta hari lotuta aplikatu daitezkeen gainerako legeak.

IV.- Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Texto Refundido aprobado por R.D.L. 781/1.986, de 18 de abril y demás legislación conexas que resulte de aplicación.

V.- Udaleko Gobernu Batzarrari dagokio proposatu den adjudikazioa egitea, kontratazio-espeditu honetan kontratazio-organo eskuduna izateagatik.

V.- Corresponde a la Junta de Gobierno Local la adjudicación que se propone por ser el órgano de contratación competente en el presente el expediente de contratación.

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi arduradunak eskatuta, Udaleko Gobernu Batzarrari hauxe igorri zaio kontuan har dezan:

A instancia del Concejal Responsable del Servicio de Contratación se eleva a la consideración de la Junta de Gobierno Local la siguiente

**ERABAKI-PROPOSAMENA:**

**PROPUESTA DE ACUERDO:**

LEHENENGOA: WALL STREET LOGISTIC SA (SEUR MENSAJEROS BILBAO - IFK: A-48214506) sozietateari adjudikatzea Getxoko udalerako mezularitza-zerbitzua, eskaintza ekonomikoan adierazi dituen prezioen arabera, hau da:

PRIMERO: Adjudicar a la razón social "WALL STREET LOGISTIC, S.A." (SEUR MENSAJEROS BILBAO), con CIF: A-48214506, el servicio de mensajería para el ayuntamiento de Getxo, por los precios indicados en su oferta económica, a saber:

<b>WALL STREET LOGISTIC, S.A.</b>	<b>ZENBATEKOA IMPORTE</b>	<b>BEZa (% 21a) I.V.A. (21%)</b>	<b>GUZTIRA TOTAL</b>
Helbideko prezioa / <b>Precio por dirección</b>	<b>4,10 €</b>	0,86 €	<b>4,96 €</b>
Kilometroko prezioa / <b>Precio por km.</b>	<b>0,45 €</b>	0,09 €	<b>0,54 €</b>
Itxarote-denborako prezioa / <b>Precio por tiempo de</b>	<b>0,30 €</b>	0,06 €	<b>0,36 €</b>

<b>espera</b>			
Zubi zerbitzuaren prezioa Euskal Autonomia Erkidegoan / <b>Precio Servicio Puente en la Comunidad Autónoma Vasca</b>	<b>4,50 €</b>	<i>0,95 €</i>	<b>5,45 €</b>
Zubi zerbitzuaren prezioa Estatuan / <b>Precio Servicio Puente Estatal</b>	<b>4,50 €</b>	<i>0,95 €</i>	<b>5,45 €</b>
Nazioarteko eta Europako zerbitzuaren prezioa / <b>Precio Servicio Internacional Europa</b>	<b>11,00 €</b>	<i>2,31 €</i>	<b>13,31 €</b>

Kontratuaren gehieneko aurrekontua 60.323,34 euro izango da, BEZaren % 21 barne, kontratuak iraungo duen urtebetean.

El presupuesto máximo del contrato será de 60.323,34 euros, 21% de I.V.A. incluido, durante el año de duración del contrato.

Kontratu honen iraupena URTEBETEKOA izango da, administrazio kontratua formalizatzen denetik aurrera zenbatzen hasita, eta ezin izango da luzatu.

La duración del presente contrato será de UN AÑO desde la fecha de formalización del contrato administrativo, no siendo susceptible de prórroga.

**BIGARRENA:** Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 153. artikuluko 1. eta 3. apartatuetan xedatutakoari jarraikiz, adjudikazioduna Kontratazio Zerbitzuko bulegoetan agertu beharko da (Foru kalea, 8) kontratua administrazio-agirian formalizatzeko, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hamabost egun balioduneko epean, gehienez ere.

**SEGUNDO:** El adjudicatario, de conformidad con lo indicado en el artículo 153, apartados 1 y 3 de la LCSP, deberá comparecer en las oficinas del Servicio de Contratación, sitas en la calle Fueros nº 8, para formalizar el contrato en documento administrativo, en un plazo máximo de quince días hábiles desde la recepción de la notificación del presente acuerdo.

**HIRUGARRENA:** Ebazpen hau prozesuan parte hartu duten lizitatzaillei jakinaraztea, eta, gainera, Langileria eta Antolaketako administrazio orokorreko teknikariak egindako 2020-12-22ko txostena (AERO-FERR NORTE SA eta WALL STREET LOGISTIC SA enpresen eskaintzetako ezohiko eta neurritz kanpoko balioen justifikazioari buruzkoa) eta 2021-01-27ko txostena (automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideen balorazioari buruzkoa) jakinaraziko zaizkie.

**TERCERO:** Notificar la presente resolución a los licitadores participantes en el proceso junto con los informes emitidos por el Técnico de Administración General de Personal y Organización, de fechas 22/12/2020, sobre la justificación de los valores anormales o desproporcionados de las ofertas de "AERO-FERR NORTE, S.A." y "WALL STREET LOGISTIC S.A." y 27/01/2021, sobre valoración de los criterios evaluables automáticamente.

**LAUGARRENA:** Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzeari buruzko Eusko Legebiltzarraren 3/2016 Legearen 5.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, enpresa adjudikaziodunak adierazi du kontratuaren xede den

**CUARTO:** De conformidad con lo dispuesto en el artículo 5.4 de la Ley del Parlamento Vasco 3/2016, para la inclusión de determinadas cláusulas sociales en la contratación, se indica que el convenio

jardueran arituko diren langileei aplikagarri zaien hitzarmena errepidez garraiatzeko hitzarmen kolektiboa dela.

colectivo que la empresa adjudicataria declara aplicable a los trabajadores que realicen la actividad objeto del contrato es el convenio colectivo de transporte de mercancías por carretera de Bizkaia.

## LURRALDEA

### 137.- JOAQUÍN ARELLANO KALEKO 6.ZKIAN DAGOEN HIGIEZINA, MERKATARITZA LOKALA BANATZEKO LIZENTZIA EMATEA.

Hirigintza-plangintza, Kudeaketa, eta Disziplina Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: Emilia Carbajo Martínez andreaki (NAN 16043153-D) Joaquín Arellano kaleko 6. zkian dagoen higiezia - merkataritza lokala banantzeko lizentzia ematea, 2020.06.19an aurkeztutako banantzeko proiektuarekin bat etorritik, Aitor Elorduy Linage Arkitekto jaunak sinatutakoa eta EHAEOK 2020.09.11n ikusonetsitakoa, baita aurkeztutako gainerako dokumentazioarekin ere.

Aterako diren lokalen azalera erabilgarria, aurkeztutako proiektuaren arabera, honako hau izango da:

- a) A Lokala: 64,80 m<sup>2</sup>
- b) B Lokala: 64,90 m<sup>2</sup>

- Idatzian eskatutakoa zehatz mehatz bete beharko du, baita honako baldintza hauek:

- Obraren betearazpenean enpresa bat baino gehiagok, enpresa batek eta langile autonomoek edo hainbat langile autonomok egiten badute lan, sustatzaileak lanei ekin aurretik edota inguruabar hori jasota geratzen den

## TERRITORIO

### 137.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS DE SEGREGACIÓN DEL LOCAL SITO EN EL INMUEBLE DE LA C/JOAQUÍN ARELLANO, 6.

A propuesta del concejal responsable del Área de Planeamiento, Gestión y Disciplina Urbanística, se acordó:

PRIMERO.- Conceder a D<sup>a</sup>. Emilia Carbajo Martínez (DNI 16043153-D) la licencia de segregación del inmueble - local comercial sito en c/ Joaquín Arellano nº 6, conforme al proyecto de segregación presentado, firmado por el Arquitecto D. Aitor Elorduy Linage, visado por el COAVN en fecha 11.09.2020, y demás documentación presentada.

La superficie útil resultante para los dos locales resultantes, según el proyecto presentado será de:

- a) Local A: 64,80 m<sup>2</sup>
- b) Local B: 64,90 m<sup>2</sup>

- Deberá ajustarse enteramente a lo solicitado en su escrito, así como a las siguientes condiciones:

- Cuando en la ejecución de la obra intervenga más de una empresa, o una empresa y trabajadores autónomos o diversos trabajadores autónomos, el promotor, antes del inicio de los trabajos o tan pronto se constate dicha

unetik bertatik segurtasun eta osasun gaietako koordinatzaile bat izendatuko duela obrak dirauen bitarte osorako.

- Obrak gauzatzen diren bitartean, indarrean dauden segurtasun-neurriak hartu beharko dituzte hirugarren pertsonak ez kaltetzeko.

- Zarata eta dardaren gaineko Udal Ordenantza bete beharko du.

- Aintzat hartuta Eusko Jaurlaritzaren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/ 2006 Legearen 215. artikulua, epe hauek izango dira:

- a) Obrak hasteko epea 3 hilabetekoa da, obra lizentzia jasotzen denetik.
- b) Lanak betetzeko gehienezko epea (1) Hilabetekoa da.
- c) Obren egikaritzea Hilabetez (1) egon daiteke geldirik gehienez ere, sustatzaileari egotzi dakizkikeen arazoengatik.

- Obra lizentzia hau emango da, hirugarren pertsonen jabetza eskubideei kalterik egin gabe, Eukal Herriko Lurzorua eta Hirigintzako 2/2006 Legearen 211.2. art.rekin bat etorritz.

Obrak amaitutakoan, lehen erabilerarako lizentzia eskatu beharko du, eta honako hauek aurkeztu beharko ditu:

- Obraren amaierako ziurtagiria, obren likidazioa eta behin betiko planoak eskalan eta solairuko mugatuak, hori guztia teknikari eskudunak behar bezala sinatuta eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsita.
- Bereizitako lokalen koloretako argazkiak.

**BIGARRENA:**

I.- Ebazpen hau interesdunari eta Arlo

circunstancia, designará un coordinador en materia de seguridad y salud durante la ejecución de la obra.

- Durante el transcurso de las obras deberá adoptar las medidas de seguridad vigentes en evitación de daños a terceros.

- Deberá cumplir la Ordenanza Municipal sobre ruidos y vibraciones.

- Teniendo en cuenta lo establecido en el art. 215, de la Ley 2/2006, de 30 de junio del Gobierno Vasco sobre Suelo y Urbanismo :

- a) El plazo de inicio de las obras será de 3 Meses, contado a partir de la recepción de la licencia de obras.
- b) Se establece un plazo máximo para la ejecución de los trabajos de Un Mes.
- c) El período máximo que podrá estar interrumpida la ejecución de las obras por causas imputables a su promotor será de Un Mes.

- Se hace constar que, de conformidad con lo previsto en el art. 211.2 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, la presente licencia se concede a salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio del de tercero.

- Al finalizar las obras deberá solicitar la correspondiente licencia de primera utilización, aportando:

- Certificado fin de obra, liquidación de obras y planos definitivos a escala y acotados de la planta, todo ello debidamente firmado por técnico competente y visado por el Colegio Oficial correspondiente.
- Fotografías en color de los locales segregados.

**SEGUNDO:**

I.- Notificar la presente al interesado y

Ekonomikoari jakinaraztea, dagozkion ondorioetarako.

al Área Económica, a los efectos oportunos.

II.- Ebazpen hau Estatistika Sailari helaraztea, dagozkion ondorioetarako.

II.- Dar traslado al Departamento de Estadística, a los efectos oportunos.

**138.- ALTUBE 6.ZENBAKIKO HIGIEZINEAREN INGURATZAILEA BIRGAITZEKO LANAK EGITEKO OBRA LIZENTZIA EMATEA ETA EREMU PRIVATUAN ALDAMIOAK JARTZEKO.**

**138.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS PARA LA REHABILITACIÓN DE LA ENVOLVENTE DEL INMUEBLE SITO EN LA C/ALTUBE, 6, ASÍ COMO PARA LA INSTALACIÓN DE ANDAMIO EN ZONA PRIVADA.**

Hirigintza-plangintza, Kudeaketa, eta Disziplina Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Planeamiento, Gestión y Disciplina Urbanística, se acordó:

LEHENENGOA: KERMÁN ELIZONDO ARRIETA jaunari (NAN 16059100-V), ALTUBE 6. zenbakiko JJEEn eskuordetzan (IFZ H-48495535), lizentzia ematea Getxoko Altube kaleko 6. zenbakiko higiezonearen inguratzailea birgaitzeko lanak egiteko. Hori guztia KERMÁN ELIZONDO ARRIETA arkitektoak idatzitako proiektua kontuan hartuta burutuko da; proiektu horrek EHAEOK ikusonetsi zuen 2020.08.05ean, eta eskatutakoari eta jarraian adierazten diren baldintzei erabat egokিতa egingo dira:

PRIMERO: Conceder a D. KERMÁN ELIZONDO ARRIETA (DNI 16059100-V), en representación de CCPP ALTUBE 6 (CIF H-48495535), licencia para rehabilitación de la envolvente del inmueble sito en c/ Altube nº 6 de Getxo, por medio de andamiaje en suelo privado. Todo ello, a la vista del proyecto presentado, redactado por el Arquitecto D. KERMÁN ELIZONDO ARRIETA visado por la COAVN a fecha de 05.08.2020, debiendo ajustarse enteramente a lo solicitado y a las condiciones que a continuación se indican:

- Obra nagusiak dira fatxada birgaitzea aireztatutako fatxada-sistema baten bidez, estalkia birgaitzea, 4. B terraza, garajeak eta horietarako sarbideak, eta euri-uren bilketa eta ebakuazioa birplanteatzea.

- Las obras principales consisten en la rehabilitación de la fachada mediante un sistema de fachada ventilada, rehabilitación de la cubierta, terraza 4ºB, garajes y accesos a los mismos, replanteando la recogida y evacuación de las aguas pluviales.

- Obra gauzatzean enpresa batek baino gehiagok, enpresa batek eta langile autonomoek edo hainbat langile

- Cuando en la ejecución de la obra intervenga más de una empresa, o una empresa y trabajadores autónomos o

autonomok esku hartzen badute, sustatzaileak, lanak hasi aurretik edo egoera hori egiaztatu bezain laster, segurtasunaren eta osasunaren arloko koordinatzaile bat izendatuko du obra egiten den tarterako.

- Obrek irauten duten bitartean, indarrean dauden segurtasun-neurriak hartu beharko dituzte, hirugarrenei kalterik ez eragiteko.

- Eusko Jaurlaritzaren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 215. artikulua honako epe hauek ezartzen dira:

a) Obrak hasteko epea 4 hilabetekoa izango da, obra-lizentzia jasotzen denetik kontatzen hasita.

b) 10 hilabeteko epea ezartzen da lanak egiteko.

c) Sustatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, gehienez ere hilabete batez eten ahal izango dira obrak.

- Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 5. artikulua ezarri duenarekin bat 4.684,90 euroko FIDANTZA jarri beharko du, Udala Diruzaintzan utzi beharrekoa.

**BIGARRENA:** Baimendu egingo da KERMÁN ELIZONDO ARRIETA jaunak, ALTUBE 6. zenbakiko jabeen erkidegoen ordezkartzan eskatutako bide pribatua okupatuz, obra burutzeko emandako epealdian. Hala, zehatz bete behar du bere idatzian adierazitakoa, bai eta honako baldintza hauek ere:

Oinezkoen pasabidea une oro bermatu

diversos trabajadores autónomos, el promotor, antes del inicio de los trabajos o tan pronto se constate dicha circunstancia, designará un coordinador en materia de seguridad y salud durante la ejecución de la obra.

- Durante el transcurso de las obras deberán adoptar las medidas de seguridad vigentes, en evitación de daños a terceros.

- Teniendo en cuenta lo establecido en el Art. 215 de la Ley 2/ 2006, de 30 de Junio del Gobierno Vasco, sobre Suelo y Urbanismo, se establecen los siguientes plazos:

a) El plazo de inicio de las obras será de 4 meses, contado a partir de la recepción de la licencia de obras.

b) Se establece un plazo para la ejecución de los trabajos de 10 meses.

c) El periodo máximo que podrá estar interrumpida la ejecución de las obras por causas imputables a su promotor será de 1 mes.

- En base a lo que se establece en el Art. 5 del Decreto 112/2012 de 26 de junio por el que se regula la producción y gestión de residuos de construcción y demolición, deberán depositar una FIANZA de 4.684,90 €, concretamente en la Tesorería Municipal.

**SEGUNDO:** Autorizar la instalación del andamio con ocupación de propiedad privada solicitada por D. KERMÁN ELIZONDO ARRIETA, en representación de la CCPP ALTUBE 6, durante el plazo de ejecución de la obra, de acuerdo con la documentación presentada, debiendo ajustarse enteramente a lo indicado en su escrito y a las siguientes condiciones:

En todo momento se deberá de



beharko da, Irisgarritasunari buruzko 68/2000 Dekretuarekin bat.

garantizar el paso de peatones de acuerdo el Decreto 68/2000 de Accesibilidad.

Aldamioaren instalazioak ez du inolako eragozpenik sortuko udal zerbitzuen kutxetetan eta horiek eragozpenik gabe egongo dira une oro.

La instalación del andamio, no afectará en ningún caso a arquetas de servicios municipales debiendo estar, estas libres en todo momento.

Inguruak beti garbi egon beharko du.

La zona deberá permanecer siempre limpia.

Aldamioaren elementu bat ere ez da espaloitik aterako, eta haren behealdea behar bezala seinaleztatu beharko da inguruko erabiltzaileek ikus dezaten.

Ningun elemento del andamio sobresaldrá, debiendo señalar la parte baja de estos adecuadamente para que sea visualizada por los usuarios de la zona.

Lanak amaitu ostean, dena kendu eta jatorrizko egoeran utziko da berriro.

Terminado los trabajos se procederá a retirar y a recolocar todo como en su estado originario.

Gogorarazi nahi dizuegu, bide publikoa obrako edukiontzi edo etxola baten bidez okupatuz gero, dagokion dokumentua aurkeztu beharko dela, horien kokaleku zehatzaren plano batekin eta okupazio-denbora adierazita.

Les recordamos que, en caso de ocupación de vía pública mediante un contenedor o caseta de obra, se deberá de presentar su respectivo impreso con un plano del emplazamiento concreto de los mismos, e indicando el tiempo de ocupación.

HIRUGARRENA: Obrak amaitzean, ikuskapen-bisita eskatu beharko dute, honako hauekin batera:

TERCERO Al finalizar las obras deberán solicitar la correspondiente visita de inspección, acompañada de:

a) Obren ziurtagiria eta azken likidazioa, teknikari eskudunak sinatuta eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsia.

a) Certificado y liquidación final de obras firmado por técnico competente y visado por el correspondiente colegio oficial.

b) Erreformatu diren aldeen kolorezko argazkiak.

b) Fotografías en color de las zonas reformadas.

c) Obran sortutako hondakinen eta materialen kudeaketari buruzko azken txostena, teknikari eskudunak sinatua.

c) Informe final de la gestión de los residuos y materiales generados en la obra, firmado por Técnico competente

d) Hondakinen kudeaketagatik ordaindutako bermea itzultzeko eskaera, operazio-zenbakia adieraziz

d) Solicitud de devolución de la garantía prestada por gestión de residuos, indicando el número de

operación.

LAUGARRENA: Eskatzaileari ebazpen honen berri ematea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

SEGUNDO: Dar traslado de la presente resolución a la solicitante para su conocimiento a los efectos oportunos.

Erabaki honen kopia ikusteko moduko lekuan jartzea gomendatzen dizuegu, udal zerbitzu teknikoei ikuskatze- eta egiaztatze-lanak erraztearen ondoretarako.

Les recomendamos que coloquen una copia del presente Acuerdo en lugar visible para facilitar las labores de inspección y de comprobación a los Servicios Técnicos Municipales.

II. Arlo ekonomikoak dagozkion eskubideak igorriko ditu. Lan horiei dagokien aurkeztutako aurrekontua 386.866,04 eurokoa da.

II. Por el Área económica se girarán los derechos correspondientes. El presupuesto presentado, correspondiente a dichos trabajos asciende a la cantidad de 386.866,04 €.

**139.- OBRA-LIZENTZIA EMATEA, KONPORTE KALEKO 6. ZENBAKIAN DAGOEN HIGIEZINAREN FATXADAK ETA ESTALKIA BIRGAITZEKO ETA EREMU PRIVATUAN ETA BIDE PUBLIKOAN ALDAMIOAK JARTZEKO.**

**139.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS PARA LA REHABILITACIÓN DE FACHADAS Y CUBIERTA DEL INMUEBLE SITO EN LA C/KONPORTE, 6, ASÍ COMO PARA LA INSTALACIÓN DE ANDAMIOS EN ZONA PRIVADA Y VÍA PÚBLICA.**

Hirigintza-plangintza, Kudeaketa, eta Disziplina Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Planeamiento, Gestión y Disciplina Urbanística, se acordó:

LEHENENGOA.-

PRIMERO.-

I.- Leire Mijangos Treviño andreami (NAN: 16083337-N), Kononporte 6 Jabekideen Erkidegoaren ordezkari gisa (IFK: H-48816680), fatxadak konpontzeko obra-lizentzia ematea 6. zk.ko Konporteko higiezinan SATE jarri eta estalkia birgaituz, bai eta eremu pribatuan eta bide publikoan aldamiok instalatzeko ere.

I.- Conceder a D<sup>a</sup> Leire Mijangos Treviño (DNI 16083337-N), en representación de la CCPP Konporte nº6 (CIF H-48816680), la licencia de obras para reparar fachadas, mediante la colocación de SATE y rehabilitación de la cubierta del inmueble sito Konporte nº6, así como para instalar andamios en zona privada y en la vía pública.

Egin beharreko obrak honako hauek dira:

Las obras a realizar consisten en:

- Fatxadan SATE jartzea.
- Estalkia, erretanak eta estalkiko

- Colocación de SATE en la fachada.
- Rehabilitación de la cubierta,

limahoiak birgaitzea, iragazgaiztea jasoz eta beste bat jarritz, isolamendua gehituz.

- Estalkiko teilatu-hegalak konpontzea
- Zorrotenak ordezte
- Leiho-ertzak berreraikitzea
- Eskaileren nukleoa emokatzea eta luzitzea

Hori guztia, aurkeztutako proiektuarekin bat etorritik (Jon Barandika Olea, Daniel Aragon Montanchez Arkitektoek idatzia eta sinatua), EHAEOK 2020.02.19an ikus- onetsitakoa; halaber, bere idazkian eskatutakoa eta honako BALDINTZA hauek osorik bete beharko ditu:

- Obra egitean enpresa batek baino gehiagok parte hartzen badute, edo enpresa batek eta hainbat langile autonomok parte hartzen badute, edo langile autonomoek bakarrik, sustatzaileak, lanak hasi aurretik edo egoera hori egiaztatu bezain laster, segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzailea izendatuko du, obrek irauten duten bitartean jardun dezan.

- Obrek iraun bitartean, indarrean dauden segurtasun-neurriak hartu beharko dira, inori kalterik ez egiteko eta materialak eta abar bide publikora jaustea ekiditeko.

- Kontuan hartuta Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 215. artikuluan xedatutakoa, baldintza hauek ezarri dira:

